



Erreleboa

Mikel Arantzamendi eta Leticia Astray

TOKIKOM BARREN



U
D
A
L
T
Z
A
I
N
G
O
A

DESA





elgoibarko
herri eskola

Gu Gue

Garena



Aurre-matrikulazio epea: otsailaren 7tik 23ra
Tel. 943 899 178 e-posta: zuzendaritza@elgoibarhe.net

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Alex Segade

Kazetaria

Nobel gidari gutxiago



***"Agian oker nabil,
baina lehen,
L gehiago ikusten nituen
errepidean"***

Azkenaldian pentsatzen hasita nago geroz eta gazte gutxiago ikusten ditudala gidatzeko baimenarekin. Agian oker nabil eta ez da inolaz ere horrela, baina lehen, L gehiago ikusten nituen errepidean. Lehen esaten dudanean, orain dela 5-6 urte esan nahi dut; ez horrenbeste denbora. Ziur aski nire pertzepzioa baino ez da izango eta urtero gidabaimena eskuratzen dutenen kopurua ez da horrenbeste aldatuko urtetik urtera. Hala ere, esango nuke azken urteetan kopurua jaitsi egin dela.

Uste dut autoeskolek oraindik itxarote-zerranda luzeak izaten jarraitzen dutela, eta horrek, azkenean, gidabaimen berrien kopuruan eragina duela. Nik gidatzeko baimena eskuratu nuenean bazeuden dagoeneko itxarote-zerranda luzeak azterketak egiteko. Esango nuke autoaren kultura -ez dakit nola deitu- galtzen ari delako ere badela. 18 urte betetakoan gidatzeko baimena eskuratzeko ohitura hori asko aldatu da azkeneko urteotan. Mugitzeko, garraio publikoa erabiltzen da, edo bizikleta, patineta eta abar, eta gainera beti izan da garestia gidabaimena ateratzea, bereziki, hemen, Gipuzkoan.

Autoen prezioek ere, noski, auto berrienak zein bigarren eskukoena, gora egiten dute urtetik urtera. Esango nuke, gidatzeko baimena lortzeko adina duten gazteak heziago daudela planeta zaintzeko kultura horretan, eta autoek duten fama izanda, ez zaiela horrenbeste interesatzen gidabaimena lortzea.

Ez dakit sentsazio hau daukadan bakarra naizen. Autoeskola bat duen norbaitekin hitz egin beharko nuke gai honi buruz, benetan asko interesatzen zaidalako. Azkenean, epe luzera, auto berrien salmentan nolabaiteko inpaktua izan dezake honek. Desplazatzeko ohiturak aldatuz doaz, autoen prezioen gorakadak bultzatuta batez ere, eta hiri handietan dituzten murrizketengatik erosoaz izateari utzi diotelako autoek.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunak. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Pedro Mugurutzako eskola: herritarren benetako parte-hartze prozesuaren alde

Aurreko legealdian, EAJ-PSEk osatutako gobernu taldeak Pedro Muguruzaren eskola zaharren eraikina botatzeko erabakia hartu zuen.

Presaka hartutako erabaki horren aurrean, EH Bilduk proposamen zehatz bat aurkeztu zuen eraikinaren orainari eta etorkizunari buruz erabakitzeko, eta honako bi zutabe hauetan oinarritzen zen:

1. Eraikinari buruzko azterlan tekniko bat egitea alde zurretik, eraikinaren benetako egoera ezagutzeko.

2. Herritarren partaidetza prozesu bat abian jartzea, elgoibartarrek eraikuntzaren eta/edo orubearen xedea erabaki ahal dezaten.

Proposamen hori atzera bota zuen EAJ-PSEk, bai Hirigintza Batzordean, bai gaia jorratu zen bi osoko bilkuretan ere, eta eraikina eraisteko asmoarekin jarraitu zuten, 2023ko udal-aurrekontuetan 350.000 euroko partida sartuta, hain zuzen ere, eskola eraisteko, baina partida hori, azkenean, ez zen gauzatu.

Aurretik, beraiek prozesu parte-hartzailea deitu dutena ireki zuten EAJ-PSEk. 2022an, ustez modu aleatorioan (inoiz ez da prozeduraren berri eman, erabat opakoa izan zen), bizilagun gutxi batzuei deitu zieten telefonoz (ez da ofizialki jakinarazi zenbati deitu zioten), eta hiru proposamenen artean aukeratzea proposatu zieten, eta horien artean ez zegoen eskolakzutik eustearena. Azpimarratu behar da prozesu horrek ez zuela bete Elgoibarko herritarren parte-

hartzeari buruzko indarrean dagoen araudian jasotako baldintzetako bat ere (deialdi publikoa, parte hartzeko aukera guztiei irekia...).

Zorionez, badirudi EAJ-PSE tandemak bere postura aldatu behar izan duela eta aurtengo aurrekontuetatik eraisteko partida kentzeaz gain, eraikinaren egoerari buruzko azterketa teknikoa egitea onartu duela.

Egoera berri horren aurrean, EH Bilduk herritarren benetako parte-hartze prozesu bat irekitzea proposatzen jarraitzen du, 48. artikulutik 54. artikulura (Herritarren partaidetzarako prozesu zehatzak) eta 55. artikuluan (Herri-kontsultak) araututako parte-hartze araudian oinarrituta.

Elgoibarko EH Bildu



LAGUNAK
colchonería textil hogar

Probatu TEMPUR PRO lastaira eta gozatu atsedean indartzaile eta lasaigarriago batez.

Etorri, bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658




Trango gogorrek autoak hondatzen dituzte:

"Santa Klaran, Txankakuako biribilguneetik 50 bat metrora, trango gogor bat jarri dute errepidean, ibilgailuek abiadura mantsotu dezaten. Zebrabidearen aurretik dago, oinezkoak babesteko, eta ondo irizten diot horri, oinezkoak babesteari, baina iruditzen zait trango hori gogorregia dela egunero hortik pasatu beharra duten ibilgailuentzat. Lehen ere bazegoen beste trango bat, baina oraingoa gogorragoa da eta gehiegizkoa iruditzen zait, gure autoak hondatzeko arriskua dagoelako".



Trenbide kalean autoetako ispiluak puskatu dituzte:

"Goiz batean Trenbide kaleko hiru autotako ispiluak puskatuta topatu genituen. Norbaitek zerbait ikusi balu, eskertuko genuke informazioa ematea".



Kalea garbitzeko gailuek zarata handiegia ateratzen dute:

"Kale garbitzaileek erabiltzen dituzten putz egiteko aparatuak oso zaratatsuak dira. Beste herri batzuetan elektrikoak erabiltzen dituzte, eta askoz zarata gutxiago ateratzen dute. Gaur egungo teknologiari esker seguru badaudela zarata hori ekiditeko aukerak".





III. URTEURRENA

Patxi Zabala Gandiaga

2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.**

Etxekoak



X. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan**

Etxekoak



X. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

**Utziguzu kontaktzen zer ederra den zu gogoratzea,
utziguzu kontaktzen irribarre artean,
utziguzu kontaktzen zer ederra den jakitea
maite zaitugula zeruaren beste aldean.**

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak



7.695 euroko laguntza eman diote Biodonostia Institutuari Mendaroko Garagardo azokakoek



Uztailean lau egunez Mendaron antolatu zuten garagardo azokan bildutako dirua Biodonostia Osasun Institutuari eman diote antolatzaileek. 7.695 euroko laguntza izan da, eta joan zen barikuan eman zieten txekoa Biodonostiako arduradunei San Agustin kulturgunean, Uztargi tabernakoek eta Galle-tiak gozotegikoek Gararock taldearen laguntzarekin antolatu zuten jazz kontzertua hasi aurretxoan.

Maria Muñoz Caffarel eta Amaia Zipritria ikertzaileek zuzentzen duten proiekturako izango da dirua, bularreko minbizi metastasikoaren kontrako immunoterapia berri bat ikertzeko. Immunitate-sistemaren aktibazioan datzan terapia biologikoari esaten diote immunoterapia. Immunitate-sistemak babesten gaitu kanpoko erasotzaileengandik nahiz gure gorputzak sortutakoengandik, esaterako minbizitik. Baina, orain arte, eta urte askoan, zelula kantzerigenoei eraso izan diete beti, kimioterapia erabilita edota terapia bideratuagoak erabilita, eta orain, immunoterapiaren bidez lortu nahi dutena da erdi loan gelditu den immunitate-sistema berriz hezte, tumorearen kontra egiteko esna dadin.

Biodonostia Institutukoek, Maria Muñoz Caffarel bera buru zutela, eskerrak eman zizkieten barikuan mendarorrei emandako laguntzagatik.

Arbola landaketa eguna dute Mendaron, domekan, hilaren 4an



Mendaroko Udalak, Itziarko Auzo Udalarekin eta Zestoako Udalarekin elkarlanean hasitako ekimenaren barruan, zuhaitzak landatuko dituzte Mendaron domekan, otsailaren 4an, eta ekimenean parte hartzera deitu du Arno guraso elkarteak. Mendaron, Goikola baserriaren inguruko sail batzuetan sartuko dituzte arbola-landareak. Herriko enparantzatik 2,5 kilometro ingurura dago lur saila, Plaza auzotik gora, erreka ondoan. Horregatik antolatzaileek arropa eta oinetako erosoak eramateko eskatu diete herritarrei, bai eta ura hartzeko ere. 10:00etan jarri dute plazan elkartzeko ordua, oinez joateko. Tresneria antolatzaileek eurek banatuko dute lekuan bertan. Ekimen beraren barruan, bihar, otsailak 3, Zestoa egingo dute zuhaitz landaketa, Ertxin mendian. Han ere, plazatik abiatuko dira, 10:00etan, eta nahi duen orok parte hartu ahal izango du.

Kandelaria eta San Blas eguneko ospakizunak gaur eta bihar

Kandelaria eguna da gaur, otsailak 2, eta San Blas eguna bihar, eta Elgoibarko San Bartolome parrokiatik jakinarazi dute aurten ospakizun bakarra egingo dutela bietarako, bihar, 10:00etan, parrokiari. Mendaron, berriz, gaur, 12:00etan, Azpilgoetako elizan ospatuko duten mezan bedeinkatuko dituzte kandelak eta San Blas opilak.

Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparkean sar dezatela eskatzeko mozioa onartu du Mendaroko Udalak



Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzeko eskatuko du formalki Mendaroko Udalak eta "aktiboki" lagunduko ditu Geoparkean sartzeko ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzeko beharrezkoak diren ekintzak. Hala onartu zuten joan zen astean, udalbatzaren osoko bilkuran. EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa, eta bere zinegotzien botoekin onartu zuten, EAJko zinegotziak abstenitu egin zirelako bozketan.

Euskal Kostaldeko Geoparkea Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen dute gaur, baina Mendarok ere hor behar lukeela uste du Mendaroko Udalak, Mendarok aparteko aberastasun karstikoa eta aintzat hartzea eta babestea merezi duten formazio eta elementu geologikoen aniztasun handia duelako, bai eta lurpeko barrunbe ugari eta Debarreneneko biztanleriaren zati handi bat hornitzen duen akuiferoa ere [Eskualdeko lau herriri ematen die ura gaur Mendarok]. Mozioan jaso dute azpimarragarria dela, era berean, Mendaron azkeneko urteetan aurkitzen ari diren aberastasun arkeologikoa, besteak beste Aldatxarren, Aizkoltxon, Agarren, Aitzbeltzen, Etxeberrin, Kurpittegin, Mortzelain eta Pagandain, eta baita ikuspegi etnografiko eta historiko batetik begiratuta Mendarok daukan aberastasuna ere, hasi antzinako garaietako burnidoletatik eta gaur egungo bizimoduari lotutakoetara arte.

Mozioan jaso dute Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzeko herriari aukera asko

zabalduko lizkiokeela, besteak beste herriko ondare geologiko, arkeologiko, etnografiko eta historikoa kontserbatzeko eta sustatzeko bidea emango lukeelako eta Debarrenen turismo iraunkorra eta ingurumen-hezkuntza sustatzeko lagungarri izango litzatekeelako. Eta horrenbestez, izendapen horrek onura ekonomiko, kultural eta hezitzaileak ekarriko litziekela mendarorrei.

Aspaldiko eskaera

Jatorri karstikoa duen aranean kokatuta dago Mendaro, Izarraitz mendilerroa eta Arno mendiaz inguratua, eta aberastasun natural hori beti azpimarratu izan dute Leizarpe-Morkaiko espeleologia taldekoek, esate baterako. Hala, urteetan ari dira Mendaro Geoparkean sartzeko eskatzen.

Euskal Kostaldeko Geoparkeko paisaiaren egiazko protagonista geologia da. "Lehen begiratuan, itsasertzetik barrurantz, bata bestearen atzetik dauden zelai eta basoak nabarmentzen dira. Baina beti gertatzen den bezala, benetako edertasuna barnealdean dago, eta leku honen interes benetakoa erraietan aurkituko dugu. Geologia da paisaia honetako egiazko protagonista, Lurraren historiako pasarte zirraragarrienak gordetzen baititu", dio Geoparkeak. Eta hor, Geoparkearen erraietan, kokatzen du Mendaro Morkaiko-Leizarpe taldeak, beren argitalpen guztietan jaso duten moduan.

Beste zuhaitz landaketa bat egingo dute bihar Elgoibarren



Bihar, zapatua, Alcorta Forging Groupekoekin batera Muskiritzuko hegalean dauden lurretan egingo duten zuhaitz landaketa parte hartzera deitu dute Elgoibarko Baso Biziak elkartetik. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 09:00etan, autoak bete eta landaketa gunera joateko. Oinetako eta arropa egokiak eramateko eskatu dute. Eskularru eta erremintak antolatzaileek jarriko dituzte.

Enpresa berriei bideragarritasun plana egiteko laguntza emango diete Elgoibarko Udalak eta Debegesak

Elgoibarren jarduera ekonomiko berri bat hasi nahi duten ekintzaile eta enpresari guztiei Bideragarritasun Plana egiteko eskatzen die Elgoibarko Udalak, baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzeko. Bideragarritasun plan hori egitea derrigorrezko baldintza da Udalaren dirulaguntza eskuratzeko. Eta hain justu ere, bideragarritasun plan hori egiteko doako laguntza ematen du Debegesak. Horren beharra dutenek Debegesarekin jarri behar dira harremanetan ondorengo bideen bidez: 943 820 110 edo ekintzaile@debegesa.eus.

'Honeyland' emango dute Elgoibarren eguaztenean, otsailaren 7an, Natur zinemaren zikloaren barruan

Karakate Bizirik plataformak, Elgoibarko Baso Biziak-ek, Morkaikok eta Elgoibarko Udalak, Ongarri zine klubaren laguntzarekin antolatutako natur zinemaren zikloaren barruan, *Honeyland* filma proiektatuko dute Herriko Antzokian, otsailaren 7an, 21:00etan. Europako erleak biltzen dituen azken emakumeari buruzko dokumentala da *Honeyland*.

Mazedoniako herri txiki bateko berrogeita hamar urteko emakume bat da Hatidze, eta erleen koloniak hazten ditu eskuz egindako saski batzuetan, harkaitzen artean ezkutatuta. Babesik eta laguntzarik gabe, ezta ateratzeko eta hiriburuan saltzeko gai da. Bere bizitzan dena da idilikoa, harik eta bat-batean bizilagun berriak jartzen zaizkion erlauntzetatik hurbil bizitzen, erleei traba eginez. Erle langileek bizitza osoa erle erregina zaintzen ematen duten bezala, Hatidze bere amaren zaintzara konprometituta dago, baina etorri berriek, zazpi haur zaratsu eta 150 behi-buruko azienda duen familiak, Hatidzeren bizimodua betirako suntsi dezakeen gatazka sortuko dute.

Martxoaren 8ko egitaraua antolatzeko bilera egingo dute otsailaren 6an

Narrutsik talde feministakoek, Haizea emakume taldekoek, Amatasun feminista taldekoek eta hainbat norbanakok osatutako emakume* talde bat hasi da martxoaren 8rako egitaraua prestatzen eta dei egin diete herriko gainerako emakumeei* otsailaren 6an Lilan egingo duten batzarrean parte hartzera. 17:30ean izango da batzarra. Zaintzaile direnei zaintzen ari diren pertsonarekin joateko aukera dutela esan diete.

37.000 euroko dirulaguntza eman dio Elgoibarko Udalak Debemeni

Udalak eta Debemenek hitzarmena sinatu zuten iaz Elgoibarko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko eta kudeatzeko, bai eta baserrietan ekoiztiko eta landatutako produktuen kontsumoak bultzatzeko ere. Hitzarmen horren baitan, 37.000 euroko laguntza eman dio Udalak Debemeni.

MIKEL ARANTZAMENDI

Udaltzainburu ohia

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

28 urte egin ditu Mikel Arantzamendik (Ondarroa, 1961) Elgoibarko Udaltzaingoan, eta azken ia bost urteetan bera izan da udaltzainburua. Ibilbide horretan denetik bizi izan du, gauza onak eta txarrak, baina oro har, Elgoibar bizitzeko herri lasaia dela iruditzen zaio. Euskalduna, abertzalea eta independentista dela dio bere buruaz, eta ahalegintsua eta zorrotza ere bai. Bere familia gogor zigortu zuten gerra garaian, eta ostean ere bai abertzale sutsuak izateagatik, eta hori izan da beti bere bandera. Kultura gustuko du, bai eta dantza egitea ere. 4 urte zituela hasi zen dantzan Ondarrun, eta erretiroa hartu duenetik Elgoibarren ere badabil, helduen dantza taldean. Azaroan hartu zuen erretiroa, eta orain, Leticia Astray elgoibartarrak hartu du kargua. Behin-behinean arituko da Astray, printzipioz, bi urtez.

Udaltzaingoari lotuta ezagutzen zaitu herriak, baina aurkez diezaguzu udaltzain izan aurreko Mikel Arantzamendi.

Ondarrutarra naiz, kostaldekoa, eta itsasoa beti gertu izan dut. Merkataritza-nabigazio lizentziatura egin nuen unibertsitatean, eta urte asko eman nituen itsasoan lanean. Lanbide gogorra da, baina niri gustatzen zitzaidan. Gauza asko ikasten dira itsasontzi batean. Askotan pentsatu izan dut bati baino gehiagori ondo etorriko litzaiokela sei hilabete itsasontzi batean pasatzea. Bizikidetzeta *Anaia Handia* modukoa da; 24 orduz denok elkarrekin egunero. Lantokia geneukan solairu batean, beheko solairuan egiten genuen jan eta lo, eta solairu bat beheago makinistak zeuden. Beti, beraz, bi solairuren artean mugitzen ginen, eta apur bat pasiaztera irteten ginen ontzi gainera. Armonika eta gitarra jotzen nuen apur bat deskonektatu nahi nuenean. Gogorra da bizikidetzeta. Sei hilabete egiten genituen itsasoan, eta denetarikoa jendea elkartzen ginen. Jende jatorra tokatu zitzaidan gehienbat, baina beti sortzen ziren haserreak. Dena dela, Ondarrun beti esaten da itsasoko liskarrak itsasoan geratzen direla, eta lehorreratzen ginenean, dena ahazten



“Sekulako lantaldea dago Elgoibarko Udaltzaingoan; esku onetan laga dut herria”

genuen. Estreinakoz ezagutu nuen txalupak 278 metro zituen, baina gerora txikiago batean egin nituen urteak, ia 200 metroko batean. Gusturago ibili nintzen bigarren hartan. Europa eta Amerika artean nabigatzen genuen. New Orleans, Texas,

Brasil... Soja eta artoa kargatzen genuen eta gero deskargatu Lisboan eta Tarragona arteko portuetan edo Mallorcan. Behin Hegoafrikara ere joan ginen, itsaso indikoan zehar, eta handik Valentziara arteko itzulera izan zen egin genuen luzeena: 24 egunez egon ginen lehorreratu gabe. 22 urterekin itsasoratu nintzen lehenengoz eta 30 bat nituela laga nuen itsasoa. Eztarritik operatu ninduten, eta azken bidaira ezin izan nintzen joan, oraindik ez nengoelako guztiz errekueratuta. Irlandara joan nintzen ingelesa ikastera sei hilabeterako, itsasontzietako hizkuntza ingelesa delako, eta nik Batxilergoan frantsesa ikasi nuenez, ingelesa indartu nahi nuelako. Handik itzuli nintzenean jakin nuen 90eko krisialdiaren eraginez, enpresak kiebra jo zuela, eta orduan hasi nintzen beste lanbide baten bila.

Itsasoa utzi, eta udaltzain lanetan hasi zinen?

Tarte horretan beste lan batzuk ere izan nituen. Lagun batek elektrizitate enpresa bat zeukan eta hari laguntzen ibili nintzen lehenengo, eta euskara irakasle ere ibili nintzen gero. Hiru bat urte egin nituen, eta asko gustatzen zitzaidan lan hura, baina ez geneuzkan lan-baldintza oso onak. Behin-behineko kontratuak egiten zizkiguten beti, eta ez geneukan egonkortasunik. 33 urte nituen eta erabaki nuen horrela ezin nuela jarraitu. Bi udaltzain lanpostu betetzeko lan-deialdia irten zen Elgoibarren, eta aurkeztea erabaki nuen. 50 lagunek eman genuen izena, eta lehenengo postua atera nuen. 95ean hasi nintzen Elgoibarko Udaltzaingoan lanean.

Zer aurkitu zenuen Elgoibarko Udaltzaingoan?

Ondarruko udaltzain ideiaz iritsi nintzen ni Elgoibarrera, baina berehala konturatu nintzen ez zeukala batak bestearekin zerikusirik. Ondarrun lanbide bat gehiago da udaltzainarena, baina Elgoibarren ez daude ondo ikusita udaltzainak. Gure lana ezezaguna eta esker txarrekoa da. Zorionez, jende gehiena jatorra da, baina tarteka izaten ditugu herritarrekin haserreak isunen kontura ere. Batzuek uste dute gure lana isunak ipintzea bakarrik dela, baina hori gure lanetik %5-10 izango da gehienez. Udaltzain izateagatik askok uste dute ez dakigula beste ezer egiten. Ni dantzaria naiz, umetatik ibili naiz dantzan, eta beste gauza asko ere banaiz, baina batzuek ez dute hori ikusten; ni udaltzaina naiz jendearentzat, eta besterik ez. Elgoibarko

"Gure lana ezezaguna eta esker txarrekoa da. Batzuek uste dute isunak ipintzea bakarrik dela gure lana, baina hori gure lanetik %5-10 izango da gehienez"

Udaltzaingoan jende gazte asko dago, eta oso ondo prestatuta daude denak. Lantaldearen herenak unibertsitare ikasketak ere baditu. Gitarra jotzen dakite, soinua... Azken bazkarian ere sekulako giroa sortu genuen tabernan.

Azaldu iezaguzu bada, zein den zuen lana.

Herritarrei laguntzeko gaude gehienbat, askok kontrakoa uste duten arren. 25 lagun daude Elgoibarko Udaltzaingoan. Horietatik 15 dira udaltzainak, bost kabo, jefaturako bat, TAOko bi langile eta bi administrari. 365 egunez egiten dugu lan, 24 orduz. Gaueko guardietan lauok taldetan antolatzen dira langileak, eta gure lanak ez du etenik. Lapurretak ekiditen ditugu, istripuetan egoten gara, gauez herria zaintzen dugu, genero indarkeria kasuak artatzen ditugu... Gaueko zaintza lan horietako batean sute bat saihestu genuen behin. Ate azpitik enpresa batean argi moduko bat ikusi zuten udaltzainek, eta sua piztu zela konturatu ziren. Suhiltzaileei deitu eta berehala lortu zuten itzaltzea. Genero indarkeria kasuren batean bi ume txikirekin sartu behar izan nuen ohean haiek lasaitzeko; beste behin bi udaltzainek erditze batean ere parte hartu zuten eta anbulantziaren zain zeudela umea jaio zen; beste behin bihotzeko bat eman zion emakumezko bati bizia salbatu zion udaltzain batek... Eguneroko ohiko lanak kenduta, urtean lau mila espedientetik gora egiten ditugu. Askok ez dute hori guztia ikusten, baina esker oneko jendea ere badago, adinekoak, bereziki.

Zure ibilbidean izan duzun unerik latzena?

Tokatu zaizkit une latzak, baina txarrena, dudarik gabe, Eibarrera bidean izandako istripuan lau gazte hil zirenekoa izan zen. Abisua jaso genuen, Sigma inguruan istripua egon zela esanez, baina duda zegoen guri edo ertzainei tokatzen

zitzaien eremu hura. Gertutasunagatik geu joan ginen. Itzela izan zen. Bi udaltzain geunden, eta kamioi gidari bat ere irten zen laguntzera. Auto baten lau gazte zeuden, eta bestean bikote bat, ume txiki batekin. Haiek hobeto zeuden, kolpeak hartuta, minez, baina haiek ezin ziren atenditu une hartan, besteak askoz okerrago zeudelako. Oso gogorra izan zen hura.

Nolako herria da Elgoibar?

Gure lanak, zoritxarrez, Elgoibarren alde iluna ezagutzera eramaten gaitu, baina, zorionez, jende gehiena oso jatorra da. Delinkuentzia aldetik herri lasaia da bizitzeko, eta batez ere, nabarmenduko nuke Elgoibarrek daukan bitzta kulturala. Oso herri aktiboa da, eta gauza asko antolatzen dira. Gure lanagatik ekintza askotan egotea tokatzen zaigu, eta ia astero dago zerbait. Elkarte asko dago, eta oso aktiboak dira gehienak.

Pandemia ere tokatu zait nire ibilbidean, eta sasoi hartan ere elgoibartarren jarrera txapela kentzeko modukoa izan zen. Tabernari batzuekin izan genituen haserre batzuk, baina oro har, jende gehiena oso ondo portatu zen, eta herri moduan oso ondo bete zituzten arauak. Horregatik hasi ginen irteten autoan musika jarrita; herritarrei beraien jarreragatik eskerrak emateko. Ez ginen irteten guri txaloak jotzeko, baizik eta herritarren jarrera eskertzeko. 'Eskerrik asko' idatzita eramaten genuen autoan.

Udaltzain izatetik udaltzainburu izatera pasatu zinen.

Bai, inork ez zuen nahi udaltzainburu izan eta neu jarri ninduten. Ez dauka zerikusirik udaltzain lanak udaltzainburuaren lanarekin. Nik kalea kontrolatzen nuen, baina udaltzainburua gehiago egoten da bulegoan, barruko lanak egiten. Zorionez, sekulako lantaldea dago Elgoibarko Udaltzaingoan. Guri ontziko kapitainak beti esaten zigun ontzirik onena eta tripulaziorik onena zituela, eta nik ere gauza bera esaten nien udaltzainei. Tarteka haserretzen ginen, baina itsasoan ikasi nuen lema bera errepikatzen diet: laneko haserreak lanean geratzen dira. Lantalde oso profesionala da Elgoibarkoa, eta beti laguntzeko prest dagoena. Gureak ez diren lan asko egiten ditugu, baina batzuek ez dute hori ikusten. Esku onetan dago Elgoibar.

Pandemia sasoa oso gogorra izan zen guretzat. Orain badakigu zer izan zen hura, baina iritsi

*"Gure lanak, zoritxarrez,
Elgoibarren alde iluna ezagutzera
eramaten gaitu, baina, zorionez,
jende gehiena oso jatorra da"*

zenean ez genekigun zer zen, eta denok geunden beldurtuta, baita gu ere. Eta guk ere bageneukan familia, adineko senideak... Nire amak 80 urtetik gora zeuzkan, eta telefonoz egoten nintzen berarekin, baina txertoa jarri zidaten arte birritan bakarrik bisitatu nuen ama, badaezpada. Baina lan egitea tokatu zitzaigun, eta langile guztiek primeran erantzun zuten. Beste herri batzuetan badakit askok baja hartu zutela, baina Elgoibarren denok egon ginen lanean. Bilerak egin nuen lantaldearekin, eta bost minutu iraun zituen bilerak. Gauza bakarra esan nien: lan egiteko unea da, eta langileek eskatuta zeuzkaten jai-egun eta oporrak ezabatu zituzten egutegitik. Jarrera hori eskertzekoa da. Pentsa, lantaldeko bat diabetikoa zen eta hark etxean geratzeko baimena zeukan, baina ez zuen baimena erabili. TAOko langilea ere gera zitekeen etxean, TAO itxi egin zelako, baina beste lan batzuetan hasi zen, eta administrariak ere etxetik lan egiteko aukera izan arren, bulegora etorri ziren. Txalotzekoa da erakutsi zuten profesionaltasuna.

Udaltzain izateko euskara eskakizuna atzera bota dute, euskarak diskriminatu egiten duela arrazoituta. Zer iritzi daukazu horri buruz?

Oso gaizki iruditzen zait. Elgoibarren Udaltzaingoak euskaraz funtzionatzen du, eta denak dira gai euskaraz egiteko. Nik gehiago nahiko nuke, baina maila ona dago. Harritu nauena da ez egotea erabaki horren kontrako protestarik udaltzaingoetan, Ertzaintzan, udaletan eta Jaurlaritzan. Gu familia guztia joan ginen Bilboko manifestaziora eta oso ondo egon zen, baina ekintza gehiago egin beharko genuke. Sumatzen nuen hau bazetorrela, eta azkenean etorri da. Tribunaletan egotea tokatu izan zait behin baino gehiagotan, eta azken galdera nik egiten nuen beti. Lanarekin zerikusirik ez zeukan zerbait galdetzen nien beti, euskaraz, bakar-

bakarrik euren euskara maila ezagutzeko. Pareko zeuden kasuetan, euskaldunaren alde egiten genuen. Niretzako oso garrantzitsua da euskara. Mikel Arantzamendi Aldarondo abertzalea naiz ni, eta beti egon naiz euskararen alde. Itsasoan ere nik beti Euskal Herrikoa nintzela esaten nuen. Unibertsitatean ere diplomatura eskuratzeko lana gaztelaniaz egin behar izan nuen, titulua lortu ahal izateko, baina lizentziaturakoa euskaraz egin nuen. Tribunalak ez zidan laga aurkezten. Euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskatu zidaten, eta esan nien hori ez zela bidezkoa, lan bikoitza eskatzen zidatela. Tribunaleko euskaldun berri bat prest agertu zen itzultzaile lanak egiteko, baina ez zuten onartu. Ziurtagiri bat eman zidaten behintzat ikasketetako bost urteak gaindituta ditudala dioena. Argi ikusten da geure legeak egiteko benetako ahalmena izan arte, euskalunok beti izango garela bigarren mailako herritarrak geure herrian.

Zein balorazio egiten duzu zure ibilbideaz?

Balorazio orokorra ona da, baina udaltzainburu egin ditudan urteetan denetik izan dut. Nahiko zorte txarra izan dut. 2019an hartu nuen kargua eta urte hartako maiatzean hilketa bat izan zen. Gero, Kalegoen plazako etxebizitza erori zen; ondoren, *Patria* grabatzera etorri ziren, eta sekulako lana izan zen kaleak hustu beharra, eta hori dena gutxi balitz, gerrako bonba bat agertu zen etxebitza bateko ganbara batean. Hori guztia 2019an!. Urtea amaitu zenean, pentsatu nuen urte hori baino txarragorik ezin zela egon, eta 2020an pandemia iritsi zen. Lagunek barre egiten zidaten, lurrikara bat bakarrik falta zitzaidala esaten. Bada, azken lan eguna ere emozionantea izan nuen. Urriaren 6a zen, barikua, eta gizonezko bat pistola batekin agertu zen kalean. Neuk kendu nion pistola! Hasieran ez genekigun zein motatako pistola zen ere; gero jakin genuen balinena zela. Gerta zitekeenaz ohartu nintzenez urduri jarri nintzen. Suizidiorik artatzea ez zait inoiz tokatu udaltzain gisa, baina bai laga eta azken oporretan nengoela. Udaltzainburu gisa azken laneguna urriaren 6an izan nuen, eta egun horretan oporrak hartu nituen. Urriaren 9an nire ondorengoarekin bileran nengoela, suizidio kasu bat izan genuen Idotorben. Berez oporretan nengoen, baina joan nintzen Idotorbera. Baina, esandakoak esanda, pozik noa egindako lanarekin.

LETICIA ASTRAY, Udaltzainburua



Leticia Astray (Elgoibar, 1980) izango da Lurrerantzean Elgoibarko udaltzainburua. 2008an hasi zen Astray udaltzain lanetan, eta urteetako esperientzia horretan oinarritu da udaltzainburu kargua hartzeko. Mikel Arantzamendik azaroan hartu zuen erretiroa, eta lau lagun aurkeztu ziren haren lekukoa hartzeko. Hainbat proba egin zituzten hautagaiek, eta Astrayk eskuratu zuen postua. Behin-behineko lanpostua izango da, eta ondo bidean, hiru urte barru aterako dute lanpostua egonkortzeko oposizioak. Barne promoziorako oposizioak izango dira, eta Astray bezala, baldintzak betetzen dituzten gainerako udaltzainek ere izango dute aurkezteko aukera.

Astrayk ilusioz hartu du udaltzainburu kargua. Kaleko lan gutxiago eta bulego lan gehiago dauka orain, eta gauzak ahalik eta ondoen egiteko ahaleginean ari da: "Delegazio berean egon arren, lanpostua berria da niretzat eta oraindik asko daukat ikasteko". Mikel Arantzamendiren biderei jarraituko dio, baina bere estiloan: "Azken batean bakoitzak bere egiteko moduak ditu, eta lana bera den arren, nik nire estiloa daukat, ez hobe eta ezta txarragoa ere, baina nirea". Hala ere, helburu bera dutela nabarmendu du, eta helburu horren alde egingo du lan: "Gure azken helburua beti da herritarrei laguntzea eta helburu hori lortzeko bidean daukagun onena emango dugu". 25 laguneko lantaldeak osatzen du Elgoibarko Udaltzaingoa, eta urteko egun guztietan, eguneko 24 orduetan ematen dute zerbitzua.



I. URTEURRENA

Antonia Urbieta Ansola

2023ko otsailaren 2an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 4an, 12:30ean, Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Maria del Carmen Urrutia Perez

2023ko otsailaren 4an hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 3an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Borrokalaria nekazina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.***

Etxekoak




I. URTEURRENA

Ankora Sustaeta Usobiaga

2023ko urtarrilaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

***Portuan ondo ainguratutako ontzia zinen, Ankora,
itsasaldi txarrei tinko eusten ziena.
Aingura askatu eta itsasoan galtzea erabaki duzu orain,
baina, mollatik, beti hautemango zaitugu zeruertzean.***

Etxekoak



Emakume zientzialariak, plazara



Iaz egin zuten estreinakoz herriko zortzi emakume zientzialariei buruzko kaleko erakusketa.

Emakume Zientzialarien Eguna da otsailaren 11, eta horren harira, bi jarduera antolatu ditu Elgoibarko Udalak, emakume zientzialariak bistaratzeko: batetik, '011 erakusleihoak' ekimena dago, eta horren barruan herriko establezimenduetako erakusleihoetan emakume zientzialarien irudiak jarriko dituzte Egur eta Ane Arte Tailerrekin elkarlanean. Bestetik, 'Gu herriko Stem emakumeak' jarduera egingo dute iaz bezala, eta herriko zortzi emakume zientzialariren panelak jarriko dituzte ikusgai, Lekuederren.

Elgoibarko Udalak emakumeak zientziara hurbiltzeko lanean dihardu, eta aurten ere bat egin du Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunarekin. Otsailaren 11 hartzen du egun horrek egutegian, eta Elgoibarren ere izango du oihartzuna. Iaz hasitako bidetik, beraz, bi jarduera egingo dituzte aurten ere. Batetik, *O11 erakusleihoak* izenekoa jarri dute martxan, herriko establezimenduekin eta Egur eta Ane Arte Tailerrekin elkarlanean. Horren barruan, herriko 24 establezimendu apaindu dituzte emakume zientzialarien irudiekin. Aurten ere ginkana batean parte hartzeko aukera egongo da, *Actionbound* aplikazioa jaitzita. 12 emakumeen kartelak bilatu eta bertako QRak eskaneatu ostean, emakumeei buruzko galderei erantzun beharko zaie. Aurtengorako aukeratu dituzten ikerlariak hauek dira: Ana Zubiaga Elordieta (Forua, Bizkaia, 1959), biologoa; Angela Saini (Londres, Erresuma Batua, 1980), zientzia-kazetaria; Brigitte Baptiste (Bogota, Kolonbia, 1963), ekologoa; Uxue Fernandez Lasa (Urretxu, Gipuzkoa, 1984), Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikertzailea; Ana Teresa Diego (Bahía Blanca, Argentina, 1954-1976), astronomia-ikaslea eta ekintzaile komunista; Mary Anderson (Greene, AEB), asmatzailea eta ekintzailea; Miriam Friedman Menkin (Riga, Letonia, 1901-1992),

genetikaria eta enbriologoa; Elena Ponciano Paino (Durango, Bizkaia, 1980), arte Plastikoko eta Ehungintza Arteko Diseinuko goi-mailako teknikaria eta soldadura eta galdaragintzako teknikaria; Wangari Maathai (Ihithi, Kenya, 1940-2011), ingurumenaren aldeko ekintzailea eta politikaria; Chieko Asakawa (Osaka, Japonia, 1958), informatikaria; Gro Harlem Brundtland (Bærum, Norvegia, 1939), medikua eta politikaria; Maia Duguine Haristoy (Hazparne, Lapurdi, 1979), euskal hizkuntzalaria.

Bestalde, *Gu, herriko Steam emakumeak* ekitaldia errepikatuko dute, eta iaz bezala, herriko zortzi emakumeren panelak jarriko dituzte ikusgai, Lekuederren: Ana Echeverria Aguirregomezcorta, señoita Anita; Cristina Montero Garcia (Zumarpe, proiektu arduraduna); Amaia Gabilondo Peñalba (Etxetar, ingeniari mekanikoa); Ana Carolina Lodeiro Caldeira (Somabe, administrazio arduraduna); Leire Garate Rodrigo (Soraluce S.Coop. Danobatgroup taldekoa, diseinua eta produktuen garapenerako ingeniaria); Miren Aguirre Arrese (Kimika fakultatea, Polymat, UPV/EHU, kimika fakultateko irakaslea eta ikertzailea); Nagore Ruiz de Escudero Zapico (Codesyntax, telekomunikazio-ingeniaria). Miren Otal Astigarraga (AVS, proiektuen kudeatzailea). Hilaren 16ra arte egongo da ikusgai.

ERRONDA-KANTUAK ETA ESKE-BERTSOAK AGEDAREN OMENEZ

✍️ Ainara Argoitia



Otsailaren 5a da Santa Ageda, eta bezpera da tradizioz kanturako eta eskerako eguna. Hala izango da aurten ere Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen taldekoentzat. Baserriz baserri ibiliko dira kantuan eta eskean, hiru talde eginda: helduenak bi eta Atxutxiamaikarena bat. Ez dira, hala ere, eske-errondan irtengo diren talde bakarrak izango. Mendaroko eskolako eta Elgoibar ikastolako umeak ere irtengo dira kalera kantura, gaur eta astelehenean, hurrenez hurren, eta bihar, zapatua, otsailak 3, izango dute eskerako eguna Mendaron, bai eta Etxegiñakoek ere, Elgoibarren.

Kristautasunaren aurreko osagai paganoak dauzka Santa Ageda bezperan kantuan ibiltzeak. Inauterien izaera berbera ematen diote etnografo batzuek: natura lozorrotik irteteko zarata egin eta negu gorria bukatzera doala ospatu. Hortik makilekin lurra kolpatzearena. Baina zentzu etnologikoaz gain, beste helburu bat ere izan du aspaldiko urteetan Santa Ageda bezperak: eskea. Etxerik etxe, eskean ibiltzea izan da tradizioa gurean, trukean etxekoei koplak batzuk kantatuz, eta usadio horri eusten diote Elgoibarren eta Mendaron ere zenbait taldek. Hona, puntuz puntu, talde bakoitzaren plana.

Gaur, Mendaron, ikastolako kantu-erronda

Gaur, hilak 2, irtengo dira kantura Mendaro

ikastolako eskola-umeak, 15:10ean. LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleek hasiko dute kantu-erronda, eguneko zentroan, eta Txokolategi parean eta Azpilgoetako Erramu arbola inguruan geldialdi bana egingo dute kanturako. Handik, Herriko Enparantzarantz abiatuko dira eta plazan zain izango dituzte LH1 eta LH2ko ikasleak. Udaletxe aurrean kantuan egin eta Mendarozabalerantz joango dira gero. Eskola ondoan HH3, HH4 eta HH5koak batuko zaizkie taldera eta Mendarozabalen bukatuko dute erronda, elkarrekin, kantuan. Amaitutakoan eskolara itzuliko dira haurrak.

Bihar, otsailak 3 Mendaroko santa eskea

Bihar dute kanturako eta eskerako eguna Mendaron. Urtero legez, 08:30ean abiatuko dira Herriko Enparantzatik, hiru taldetan banatuta. Sahatzu mendira egingo du taldeetako batek, Amaia Agirre eta Nerea Ostolaza bertsolariak eta Iñaki Elortza *Kortaberri* eta Jon Larrañaga trikitilariak lagun hartuta. Mendarozal auzokoez, berriz, Beñat Lizaso eta Aitor Salegi bertsolariak izango dituzte koplari lanetarako eta Idurre Arriola, Amaia Sukia eta Maite Olazabal soinu eta panderoarekin. Azkenik, Aranerrekan, Iñigo Zubiaurre *Beitxi* eta Aitor Zubikarai arituko dira koplari lanetan, eta Iñigo Loiola, Igor Rey eta Leandro Esnaola, trikiti eta panderoarekin.

Santa eskean batzen duten dirua In Leike kultur elkartearentzat izango da aurten, eta elkartetik zehaztu dute Eusebio Mugertza Txirristaka bertso-jartzaillearen 150. urtemugako kultur-programa antolatzeko baliatuko dutela dirua. Baserriz baserri eta kalez kale arituko dira eskekoak, eta ondoren, Aizpe elkartean bazkalduko dute elkarrekin.

Etxegina taldekoen santa eskea

Bihar, otsailak 3, irtengo dira Elgoibarren Etxegina taldekoak santa esкера. Urtero bezala, Bolatokian elkartuko dira, 09:00etan, eta bi taldetan abiatuko dira kantura. 11:00etan La Union elkartean elkartuko dira gero, San Lazaro egoitzara elkarrekin joateko kantura. 12:00etatik aurrera, erdiguneko kaleetan ibiliko dira eskean eta kantuan, eta ondoren Baltasar elkartean bazkalduko dute. Ignacio Mugertza eta Iñigo Legorburu arituko dira koplari, eta Elgoibarko Herri Eskolako eta ikastolako haurrak ere batuko zaizkie.

Otsailak 4: Elgoibarko Izarraren santa eskea

Elgoibarko Izarraren santa eskeak 30. urteurrena izango du aurten, 1994an berreskuratu baitzuten Santa Ageda bezpera egunez baserriz baserri kantuan eta eskean jarduteko usadio zaharra. Iaz bezala, bi plan prestatu dituzte aurten ere: Bata, helduena: 08:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta, Aiaztia, Sallobente eta Urruzuno auzoak koplaturiko dituzte. German Meabebasterretxea, Juan Mari



Areitio, Millan Telleria eta Joan Jose Eizmendi *Loidisaletxe* izango dira koplariak eta Ander eta Aintzane Agirrebeña neba-arrebak eta Oier Baltzola eta Aitziber Larrañaga izango dituzte lagun soinu eta panderoarekin. Hirugarren taldea Atxutxiamaikarena izango da. Talde honetakoak 10:00etan elkartuko dira Azkueko ermitan, eta 15:00ak arte jardungo dira auzoko baserrietan kantuan. Uxue Alberdi eta Eneko Beretxinaga arituko dira koplari eta Zabaletarrak trikitiarekin.

50 lagun baino gehiago elkartuko dira Elgoibarko Izarraren koruetan, eta 15:00ak aldera arte arituko dira kantuan eta eskean. Ondoren, Sigma jatetxean bazkalduko dute elkarrekin.

Otsailak 5: Elgoibar Ikastolako kantu-erronda

Otsailaren 5ean, irtengo dira koplak kantura Elgoibar ikastolako ikasleak, 10:00etan. Elkarrekin abestuko dituzte eguneko lehenengo koplak HHko eta LHko ikasleek, Ikastolako atarian, eta ondoren, adinka banaturiko dituzte, herri osoa koplazteko. LH1 eta LH2koak esaterako, Gabriel Krutzelaegi, Maala, Toletxe eta Artetxe kaleetan barrena arituko dira kantuan, eta LH3 eta LH4koek, Urazandi, Jausoro, Kalegoen plaza eta Kultur Etxea koplaturiko dituzte. LH5 eta LH6koak, berriz, Gabriel Krutzelaegi, Basarte, Erretsundi, Arregitorre eta San Roke inguruan arituko dira kantuan. HH4 eta HH5ekoak ere irtengo dira kantura, eta LH5 eta LH6koekin batera, Gabriel Krutzelaegi kalerantz joango dira koplak-kantuan, ikastola atarian egingo duten hasierako saio horren ondotik. Ikastolatik ohartarazi dute euria egingo balu, ikastolan ospatuko luketela.





GOGOTIK GOZATU DUTE GAZTEEK BOSKO EGUNEAN

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Asier Orbea / MEKA



Hezkuntza ertaineko ikastetxeetan Bosko Eguna ospatu zuten joan zen barikuan, eta eskolan ez ezik, kalean ere jai giroa igarri zen. Eskolan egin zituzten hainbat ekintza goizean zehar; antzerkia, patata tortilla lehiaketa, herri kirolak..., baina eguerdi alderako kalerako bidea hartu zuten gazteek. JoTaSua txarangaren erritmora ibili ziren kalean zehar, eta gero, bazkaria egin zuten Sigman. Iluntzean Patxangoi elektrotxarangak kontzertua eman zuen Aita Agirren, eta gauean, gaztetean jarraitu zuen festak. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza Elgoibarren izango dira hilaren 16an 'Almazenean' lanarekin

David Desola idazle katalanak sortutako komedia zorrotz eta garratza da *Almazenean* eta lan munduan sufritzen den esplotazioaz eta kapitalismoaz hausnartu nahi du.

Jubilazioa hartzeko dagoen arduradunaren paperean arituko da Iker Galartza antzezlanean, eta haren ordezkoa izango den langile gaztearen paperean Zuhaitz Gurrutxaga. Bost egunez lantokia partekatuko dute biek, itxuraz ezer gertatzen ez den almazen huts batean. Horixe du ardatz Txalo Produzioak konpainiaren obra honek: ezezagun biren arteko isilune deserosoa, itxaroten egotearen amorrazioa, pertsonaia biren arteko gatazka eta gezur handi baten zama. Baldintza horietan, langile bien arteko hartumana estutzen joango da, eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientziak. 75 minutuko iraupena du obrak.



Sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean eskuratu daitezke (herrikoantzokia.eus), eta zapaturu, Herriko Antzokiko lehiatilan ere bai, 18:15etik 20:45era bitartean. Sarrerak hamar euro balio ditu, eta hiru euro, gazte txartela dutenentzat.

Jon Plazaolaren 'Tun-tum platz' bakarrizketa, Elgoibarren



Jon Plazaola aktoreak (Urretxu, 1982) *Tun-Tum platz* bakarrizketa egingo du otsailaren 18an, Elgoibarren, Aita Agirre Kulturunean, Txalo produkzioak eskutik. 12:30ean hasiko du bakarrizketa, eta ez da ordaindu beharrik izango ikusteko. 23 urte daramatza Plazaolak oholatzatik oholatzara eta *stand up* formatoko bakarrizketa da Elgoibarren egingo duena.

Otsailaren 9an ospatuko dute Elgoibar Ikastolakoek euskal inauteria



Euskal inauteria ospatuko dute Elgoibar Ikastolako eskola-umeek gaur zortzi, otsailaren 9an. HH3tik LH6ra arteko ikasle eta irakasleek parte hartuko dute. 14:45ean abiatuko dira kalejiran ikastolatik, eta bidean hiru geldidune eginez, Kalegoen plazaraino joango dira, han bukaera emateko. Geldialdiak hauek izango dira: HHkoak (Maalako parkean), LHko 1-2 eta 3 mailetakoak (Kultur Etxean) eta LHko 4-5 eta 6koak (Leku Ederren).

Musika eskolako en kalejirarekin hasiko dituzte Elgoibarren inauteriak

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek eta Beti Sua txarangak hasiko dituzte inauteriak Elgoibarren Eguen Zuri egunez, kalejira koloretsu batekin. 17:15ean irtengo dira musika eskolatik bertatik eta Maalaraino joango dira. Han, musika eta dantzak egingo dituzte, eta musika eskolara itzuliko dira berriro, kalejiran. Biharamunean, barikuan, Elgoibar ikastolakoei euskal inauteriak ospatuko dituzte, kalez kale, 14:45ak aldera ikastetxetik irtenda.

Ludotekan eta Gaztelekuan otsailaren 6an hasiko dituzte inauterietako prestaketak. Mozorroak prestatu eta lokalak apainduko dituzte eta beste zenbait ekintza ere egingo dituzte. Ondoren, hilaren 10ean, mozorro bazkaria egingo dute ludotekan, 12:00etatik 16:30era, eta egun berean, gaztelekuan Just Dance txapelketa egingo dute 17:00etatik 19:00etara. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak ere irtengo dira kalera egun horretan, Elgoibarko dultzaineroak lagun hartuta, eta 12:30etik 14:00ak aldera arte kalez kale ibiliko dira.



Atxutxikaraokea eta bertsio-gaua

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatutako inauterietako programaren barruan, otsailaren 18an, atxutxikaraokea egingo dute Maalako parkean, 17:30etik 19:00ak bitartean. 16 urtez azpikoek parte hartu ahal izango dute, eta ez da aurrez izenik eman beharko. Gauerako, berriz, bertsio gaua antolatu dute 16 urtez gorakoentzako. 00:00etan hasiko da, eta taldeka zein bakarka parte hartu ahal izango da. Abesti bat bertsionatu beharko dute, playbacka eginez nahiz zuzenean abestuz. Lau sari banatuko dituzte: taldeko sari nagusia (250 euro), bakarkako saria (170 euro), taldekako bigarren saria (170 euro) eta sari berezia (150 euro). Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du Elgoibarko Izarraren webgunean.

Inauterietako playbacka antolatu du Arno guraso elkarteak Mendaron



Inauterietako zapaturako, otsailaren 10erako, playbacka antolatu du Mendaron Arno guraso elkarteak, azkeneko urteetan egin izan duen moduan. 19:00etan hasiko da karaokea, baina parte hartzeko interesa dutenek izena eman behar dute aurrez ekintzakarno@gmail.com helbidera idatzita. Mezuan, aukeratutako abestia zein den zehaztu beharko da, bai eta parte-hartzaileen adina ere. Bakarka zein taldeka hartu ahal izango da parte, baina taldeka izena ematen dutenek zenbat partaide diren zehaztu beharko dute izena ematerakoan.

Inauterietako kontzertu berezia emango du gaur zortzi Sinuösek

Sinuöse taldeko Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek inauterietako kontzertua emango dute Kultur Etxeko Sotoan otsailaren 9an. 28. ekitaldia

izango dute aurtengoa, 1997an hasi baitziren inauterietan musika saio bereziak ematen. 23:00etan hasiko da kontzertua.

San Agustin kulturgunea goraino bete da Mendaroko hirugarren Jazz Egunean

Malwina Masternak jazz abeslariaren (Ostrowiec Świętokrzyski Polonia) kontzertua iragarria zuten, baina hori baino osagai gehiago ere izan zituen Uztargi tabernakoek eta Galle-tiak gozotegikoek Gararock taldearen laguntzarekin barikurako antolatu zuten hirugarren Jazz Egunak. Izan ere, Ameikutz musika eskolako ikasle bik ere parte hartu zuten jaialdian, eta ez zen, gainera, edozelako parte-hartzea izan haiena. Haizea Urkiak Sia abeslariaren *Chandelier* kantua interpretatu zuen pianoarekin, eta Maite Marquezek Adeleren *Someone Like You*, Iñigo Ruiz de Gordejuelak (Mendaro, 1994) pianoan lagunduta. Aurrez ere arituak ziren bi ikasleak jende aurrean, baina areto bete jenderen aurrean jardun ziren barikuan, artista handien pare. Musika eskolako ondotik irten ziren oholtzara Malwina Masternak jazz abeslaria eta barikuan taldekide izan zituen hiru musikariak, Miguel Rodriguez (pianoa), Joan Terol (bateria) eta Javier Callen (kontrabaxua), eta gogotik gozatu zuen publikoak. Kontzertu aurrean aurkezleek iragarri zuten kontzertu ziklo baten estreinakoa izango zela gainera barikukoa. Hurrengo kontzertuak honako hauek izango dira:

■ **Martxoak 3 (domeka):** Irati Bilbaoren kontzertua. Mikel Nuñez (pianoa), Fran Serrano



(baxua) eta Aitor Bravo (bateria) taldekideekin batera arituko da Bilbao bere proiektu pertsonala aurkezten. Jazz klasikoa du oinarrian proiektuak, baina musika-espektrora zabala du.

■ **Maiatzak 25 (zapatua):** Satxa Soriazuren Megadeth projektua. Megadeth proiektuko trash metala jazz klamera ekarriko du Soriazuk.

■ **Uztailak 18 (eguna):** Move taldearen kontzertua. Iñigo Ruiz de Gordejuela piano jotzaile mendaroarraren taldea. Alberto Areta (saxofoia), Javier Callen (kontrabaxua), Borja Barrueta (bateria) eta Iñigo Ruiz de Gordejuela berak osatzen dute taldea.

Duna Santosek eta Uxue Cabrerak Villabonako Aurreku Txapelketan hartu dute parte

Domekan jokatu zuten Villabonako Aurreku Txapelketa 30 dantzarik, bi mailatan banatuta. Txapelketan Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bi dantzari ere izan ziren, Duna Santos eta Uxue Cabrera eta pozik agertu dira arduradunak haiek emandako mailarekin, bai eta entseguz entsegu erakusten duten gogo eta kemenarekin ere. Txapelketako hurrengo saioa otsailaren 25ean jokatuko dute, Oiartzunen, eta Uxue Cabrera arituko da bertan dantzan Elgoibartik.





Sabino Longarte Oyarzabal

2024ko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



X. URTEURRENA

Luis Izagirre Arrizabalaga

"Lizundia"

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez
X. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 3an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Etxekoak



Jose Mari Barrutia Urreta

2024ko urtarrilaren 29an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



Eladio Gorostiza Garate

2024ko urtarrilaren 27an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure oroimenean
bizi zaren artean,
betiko izango zara
gure bihotzetan.***

Etxekoak



Jo Ta Sua peñakoek bazkari baten bueltan ospatu dute 25. urteurrena



25 urte bete izana ospatzeko hainbat ekintza prestatu dituzte Jo Ta Sua peñakoek, eta bazkari baten bueltan batzea izan da horietako bat. Hainbat laguni aitortza ere egin zieten. Taldeko zuzendaritzatik igaro diren kideei eskerrak eman

zizkieten Sigma jatetxean egin zuten bazkarian; eta, taldearen alde egin duten lanagatik aitortza egin zieten bost laguni: Anton Iranzo, Luis Santolaya, Hector Garrido, Iosu Zubiaurre eta Agustin Alonsori. Oroigarri bana eman zieten.

Aldundiak 600.000 euro inbertituko ditu Olaizaga eta Mintxeta kirol gunetan



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuak 8.180.000 euroko diru partida jarri du 35 herritako kirol instalazioak hobetzeko, 2023-2025 aldirako Kirol Ekipamenduen Planaren baitan. Debarbarrena eskualdean 830.000 euro inbertituko ditu Aldundiak, zehazki, Elgoibar, Eibar eta Mutrikuko kirol-azpiegiturak hobetzeko. Elgoibarrerako bi partida onartu ditu. Lehena, Olaizaga kiroldegiko igerileku zaharren eraikina eraberritzeko 480.000 euroko partida: 159.984 eurokoa izango da 2024rako diru-laguntza eta 320.016 eurokoa 2025ean. Bigarrena, Mintxeta kirol-instalazioen birgaitze partziala gauzatzeko diru partida izango da, 120.000 eurokoa guztira, bi zatitan: 40.000 euro aurren eta 80.000 euro 2025ean.

Mendi-irteera eta sagardotegian bazkaria Morkaikorekin

Sagardotegia eta mendi-irteera uztartzen dituen urteroko plana prestatu dute Morkaikok eta Eibarko Klub Deportiboak otsailaren 17rako. Elgoibartik Ataunera joango dira autobusez, 08:15ean. Goiz partean Ataun eta Zaldibia

mendiz batuko dituen mendi-irteera egingo dute eta Altxaga sagardotegian bazkalduko dute gero. Otsailaren 8a da izena emateko azken eguna, eta online egin beharko da izenematea morkaiko.eus webgunean.

Paula Calvok urrezko bi domina irabazi ditu Gipuzkoako Igeriketa Txapelketako maila absolutuan



Neguko txapelketen sasoian emaitza apartak eskuratzen dihardu Paula Calvo igerilari gazteak (Elgoibar, 2009) Urtarrilean jokatu dituen txapelketetan 11 domina eskuratu ditu guztira, horietako zortzi Gipuzkoako Neguko Txapelketan. Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak hartu zuten parte Bergarako Agorrosin kiroldegian jokatu zuten txapelketan. Eibar Igerixan taldea ordezkatu zuen Paula Calvo elgoibartarrak igerian adina lan eduki zuen podiumean igo eta jaisten, zortzi domina lortu baitzituen. Junior mailako igerilariak urrezko lau domina irabazi zituen bere mailako igerilariekin lehiatuta: 100 libre, 200 estilo eta 100 eta 200 bizkar erako probak irabazi baitzituen. Emakumezkoen maila absolutuan ere hartu zuen parte eta igerilari helduagoen aurka ere emaitza bikainak eskuratu zituen. Urrezko dominak irabazi zituen 400 libre eta 200 bizkar erako probetan, eta horiekin batera, zilarrezkoa irabazi zuen bizkar estiloko 100 metrokoan eta brontzezkoa estilo libreko 100 metrokoan. Emaitza horiekin, haur kategoriako igerilari onenaren saria jaso zuen Paula Calvok, eta absolutu mailan bigarren igerilaririk onena aukeratu zuten.

Zilarrezko bi domina Espainiako Txapelketan

Junior eta Haur Mailako Federazio Autonomikoen arteko Espainiako XII. Txapelketa jokatu zuten, urtarrilaren 19tik 21era bitartean, Balear Uharteetako hiriburu Palmako Son Hugo igerilekuan, eta hor ere irabazi zituen dominak igerilari elgoibartarrak. Euskadiko selekzioa ordezkatu zuen 100 libre, 50 bizkar, 100 bizkar eta 200 bizkar probetan, eta zilarrezko bi domina irabazi zituen: bizkar estiloko 100 eta 200 metroko probetan, hain zuzen ere.

Gipuzkoako selekzioarekin Bartzelonan

Euskadiko selekzioarekin bakarrik ez, Gipuzkoakoarekin ere lehiatu da Paula Calvo urtarril honetan. Alejandro Lopez igeriketa txapelketaren 45. ekitaldia jokatu zuten Bartzelonako CN Sant Andreuko Pere Serrat igerilekuan, urtarrilaren 13an eta 14an. Calvok 200 libre, 100 bizkar, 200 bizkar eta 200 estilo probetan hartu zuen parte Gipuzkoako taldearekin eta guztietan sailkatu zen finalerako, eta zilarrezko domina irabazi zuen bizkar estiloko 200 metrokoan. 50 igeri taldetako 463 igerilari lehiatu ziren Alejandro Lopez txapelketan.

Cimde Elgoibar taldea bigarren fasetik kanpo gelditu da



Cimde Elgoibar eskubaloit taldeak Euskal Ligako bigarren fasean lehiatzeko promozioa jokatu zuen joan zen asteburuan Eibarko Ipurua kiroldegian. Lau talde lehiatu ziren eta bakarrarentzako zegoen saria, bigarren faserako sailkatzea. Zuazo Jubenil Gorria taldeak eskuratu zuten, bi partida irabazi eta bat galduta. Etxeko taldea, Mek Eibar, sailkatu zen bigarren postuan eta Cimde sailkatu zen hirugarren, partida bat irabazi, beste bat berdindu eta bestea galduta. Lehenengoan, 26-28 irabazi zuten Mek Eibarren aurka. Bigarrenengoan 26-22 galdu Bergararen aurka, eta 24-24 berdindu zuten Zuazoren kontra.



Laia
Correa
Ramos

6 urte, Elgoibar


"Katu-unikornioa ostadar gainean"



Irati
Soraluze
Andonegi

5 urte, Elgoibar

"Balea"



HIZKI-ZOPA

Aurki itzazu hizki-zopa honetan
hamar neska-mutilen izenak

H A I Z E A Y O X
T O U A I A S N P
V R P J A E W R E
H E J M A L E N R
K I E D E R H N U
O X H R Y U N A X
L U J J A R E R A
U Z M O H C I N N
R U J A I R O E A

HAIZEA
KEPA
MALEN
PERU
EDER
UNAX
JARE
LUR
JAIRO
ANA

FRUTAK IZEN DATU

Fruta bere izenarekin lotu

1. SAGARRA



2. PLATANOA



3. MADARIA



4. LARANJA



5. MASUSTA



6. MELOKOTOIA



7. PIKUA



8. PIÑA



9. LIMOIA



MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri
dagokion eragiketa ikurra (+/ -) hutsune bakoitzean:

$$12 \dots 8 \dots 4 = 0$$

$$4 \dots 4 \dots 7 = 1$$

$$60 \dots 10 \dots 5 = 65$$

$$22 \dots 2 \dots 3 = 17$$

$$51 \dots 1 \dots 10 = 60$$

$$35 \dots 5 \dots 1 = 31$$

Erantzunak:



$$12 - 8 - 4 = 0$$

$$4 + 4 - 7 = 1$$

$$60 + 10 - 5 = 65$$

$$22 - 2 - 3 = 17$$

$$51 - 1 + 10 = 60$$

$$35 - 5 + 1 = 31$$

LANA

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago arratsaldeetan.

Titulu soziosanitarioa daukat, baita urteetako esperientzia ere.

604 910 708

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Lanotan 7 urteko esperientzia daukat.

643 950 130

Umeak nahiz adinekoak zainduko nituzke eta etxeetan eta lokaletan garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

634 196 236

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan. Titulu soziosanitarioa daukat eta esperientzia ere bai.

632 679 710

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak (etxeetan, ostalaritzan...) egiteko prest nago. Orduka.

632 684 096

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

631 664 700

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez lan egitea nahiko nuke. Esperientzia daukat.

667 051 376

GARAJEAK

Garaje itxia alokatzen dut Trenbide 9an (Sarrera, Lekuederretik). Lehenengo pisuan. **670 406 748**

ETXEBIZITZAK

Gazte elgoibartarrak etxea hartuko luke alokairuan epe luzerako.

619 966 696

BESTELAKOAK

Ortu txiki bat hartuko nuke alokairuan.

605 720 758

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.


Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Bizilagunen komunitate bateko aktari buruzko informazioa ohar taulan jartzeak etxejaberen baten intimitateari eragiten badio, izan daiteke arazoa komunitatearentzat?</p> <p>Adierazpen eta informazio eskubidearen eta ohore-eskubidearen arteko gatazkan adierazpen eta informazio askatasun eskubidea gailendu behar da. Informazioa interes orokorrekoa eta egiazkoa izateak muga bakarrik. Kontuan hartu behar genuke ohore-eskubide hausterik ez dagoela aktan jasotakoak komunitateko etxejaberen interesekoak direnean eta aktaren edukia jabe guztiei zabaltzea araudiak zehaztutako ohiko funtzionamenduaren parte denean.</p> <p>Ondorioa: Bileran aktara eraman den informazio garrantzitsua ezin da ohore-eskubidearen urratze gisa hartu. Ezin da eskubide hauste izan aktaren edukia zabaltzea. Araudiaren arabera, komunitate baten ohiko funtzionamendurako ezinbestekoa da jabeen bilera batean hitz egindako gai garrantzitsuen edo hartutako erabakien berri ematea. Komunitate guztietan akta baten bidez jakinarazi eta zabaldu behar da informazioa, prozedura legalak hala ezartzen duelako.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.



Zorionak, **Liherr**, 6 urte handi, Sanblas txiki! Muxu berezi bat Aiaren partetik. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **printzesa!** Bihar 4 urte. Muxu potolo bat familikoen partez eta bereziki anaia Igor eta lehengusina Nerearen partez.



Urtarrilaren 26an 9 urte bete zituen gure txirindulari, pilotari eta musikari abilak. Zorionak, **Egoi!** Segi beti bezain irribarretsu eta jator! Muxu!



Zorionak, **Gilen!** Eguzkiari 2. buelta eman diozu! Kaskoa jantzi eta goazen hurrengoa hastera, baina polikiago. Muxu bat, bihurritxo. Maite zaitugu.



Zorionak, **Noa!** Gaur 5 urte handi. Goazen guztiok ospatzera. Muxu handi bat, familiako guztion partez.



Katuak harramazka kendu dio orria egutegiari! Iritsi da eguna! 11 urte bete ditu gure **Junek**. Muxu, etxekoan eta lagunen partez.



Zorionak, **Mikel!** Igandean 5 rte beteko dituzulako. Muxuak familia guztiaren partez, bereziki Lukenen partez.



Zorionak, **Ametz!** Dagoeneko 10 urte. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Laia!** 10 urte dagoeneko! Muxu pila bat etxekoan, eta bereziki Mararen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

EXPRESS ESKAINTZAK!

COMELEC FA5004 AIRE FRIJIGAILUA

90 €



- 1500 W
- 5 L
- 8 programa
- Kontrol taktila
- Oinarri irristagaitza
- Segurtasunerako eremu hotza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

EUSKARA ERREFORTZUAK EMATEKO HEZITZAILEAK BEHAR DITUGU (eguerdi eta arratsaldeetan)

ESKATZEN DA:

- Ahozko euskara maila handia izatea.
- 16 urtetik gorakoa izatea

ESKAINTZEN DA:

- Trebatzeko aukera

ORDUTEGIA:

Astearte eta ostegunetan 12:30-14:30
edota, asteleheneetik ostegunera 16:30-19:15

Interesdunek lan poltsan eman behar dute izena:

labur.eus/eilanpoltsa



2 BARIKUA

15:10 Mendaroko Ikastolakoen santa eskea. Mendaroko Eguneko Zentrotik abiatuko dira eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

18:30 Kafe tertulia: 7. artea. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan.

3 ZAPATUA

08:30 Santa eskea, Mendaroko kale eta baserri-auzoetan. Herriko Enparantzan hasita.

09:00 Etxegiña taldekoen santa eskea. Bolatokian hasiko dira, eta herriguneko kale eta auzoetan arituko dira koplakantuan.

4 DOMEKA

08:30 Santa eskea, baserri-erri, Elgoibarko Izarrarekin. Kalegoen plazatik.

10:00 Santa eskea, baserri-erri, Atxutxiamaikarekin. Azkue auzoko ermitan hasiko dira.

10:00 Arbola landaketa, Mendaron. Herriko Enparantzan batuko dira.

5 ASTELEHENA

Goizean zehar, Elgoibar Ikastolakoak santa eskean irteango dira. Mailaka banatuta, herriko kale eta auzoak koplaturiko dituzte. Euria bada, Ikastolan bertan egingo dute.

16:00 Zaintzako eta etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua emango du Merlin Medinak. Lilan. Bakarkako saioak izango dira. Txanda hartzeko: 688 640 983

7 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: 'Harreman osasuntsuak lagunen artean'. Treba gurasoak egitasmoaren barruan. Nerea Mendizabalek emango du, Aita Agirreko areto nagusian. Euskaraz izango da.

8 EGUENA

Eguen zuri

17:15 Musika Eskolako ikasleen kalejira, Musika Eskolan hasita.

Jarraian, Musika Eskolako banda eta txarangarekin, dantzaldia, Maalako parkean. Amaitzeko, kalejira egingo dute Musika Eskolaraino.

9 BARIKUA

15:00 Elgoibar Ikastolakoen Euskal Inauteria. Mailaka banatuta, herriko hainbat gunetan egingo dute dantzan, eta Kalegoen plazan amaituko dute. Euria bada, ikastolan egingo dute.

23:00 Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

Zinea Herriko Antzokian

'A fuego lento'

2, barikua: 19:00

3, zapatua: 19:00 / 22:15

4, domeka: 19:00

5, astelehena: 21:00

'Honeyland'

(Ongarri zinekluba)

7, eguaztena: 21:00 (VOS)

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OTSAILA

2 BARIKUA

■ Oruesagasti

3 ZAPATUA

Barrenetxea

4 DOMEKA

Barrenetxea

5 ASTELEHENA

■ Ibañez

6 MARTITZENA

Barrenetxea

7 EGUAZTENA

Arriola

8 EGUENA

■ Fernandez

9 BARIKUA

Yudego

2024 urte guztian, gauez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

2024-2025 Zatoz!

2024/2025 ikasturterako DBHko aurrematrikula
otsailaren 7tik otsailaren 23ra

Elgoibarko eta Mendaroko gurasoentzat bilerak:

Otsailaren 7an, arratsaldeko 18:00etan gaztekeraz eta 19:00etan euskeraz,
Ezenarro eraikuntzako (Mekan), Areta Nagusian.



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Alregitorre 2
943 859 316
013431aa@hezkuntza.net



elgoibarko
ikastola

Kalarrua, 8
943 740 879
012777aa@hezkuntza.net



Kilmon etorbidea, 2
943 796 141
012389aa@hezkuntza.net





ikastola

Aurrematrikulazioa
otsailaren 7tik 23ra

Ate irekiak
otsailaren 5ean
18:00etan



elgoibar ikastola

elgoibar@elgoibarikastola.eus

943 744 441

